

DICCIONARIO ETIMOLOGICO VASCO

A. Tovar eta M. Agud

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.
Año 39. Tomo XXXVI. N.º 2 (1991), p. 385-389
ISSN 0212-7016
San Sebastián: Eusko Ikaskuntza

DICCIONARIO ETIMOLOGICO VASCO deituriko hiztegi berriaren lehen emaitzak, dagoeneko, kalean ditugu, oraingoz, separata gisa bi ale argitaratu direlarik, hots, A izkitik *Arduri* arte doana lehen liburukian, eta *Ardun-etik Beuden* arte bigarrengoan. Hiztegiak segida izan du ASURJ aldizkariaren barnean, K izkira iritsi arte; seguraski, zortziren bat liburuki dena.

Euskal filologia aztertu nahi duenarentzat beharrezkoa bihurtuko da hiztegi honen behaketa, non XIX eta XX mendetan zehar euskal etimologismoaz emaniko iturri aunitz aurkitzen baita. Egileak *A. Tovar* eta *M. Agud* euskalariak izan dira, bertan bai *J. Corominas-ek* eta *K. Mixelena-k* ere parte kontsideragarria izan dutelarik. Horrelako autoreek halako pisua damaiote obrari, denok dakigunez, euskal etimologintzan, asmakuntza deitoragarriena ez-ezik, ausardia izan baitan nagusi. Euskaldun guziok, bada, abegi onez hartu behar dugu lan hain eskergea, ia berrogei urtetan burutua.

Hiztegiaren datuak, iritzi-multzok, hipotesi barreiatuak, han-hemengo aipuak etengabeak dira. Bereziki, iritzi kaukasiarren, kamitikoaren, ipar-afrikarren ildotik emaniko, ia oro, bertan atzemangarri. Eta kontutan edukitzekoa da, euskaldunok, kondairan zehar, nolako arretaz, eta maniaz ere, joan izan garen hitz-erroetara, oso maiz, prestakuntza filologiko minimorik gabe. Ia euskaldun bakoitza "etimologista" bihurtu zaigu, askotan. Eta gure artean gertatu den etimologismo arrunta, sarritan, biziki deitoragarria izan da.

Hiztegiaren urratsik hobenetakoak erabilitako irizpide filologikoak izan dira. Etzen erraza irizpide horien finkapena. Lehenago *M. Löpelmann-ek* entsegu gisa eskainiriko *Etymologisches Wörterbuch der Baskischen Sprache* (EWBS) (Euskararen Hiztegi Etimologikoa, alemaneraz) hutsune bat betetzera etorri zen, bainan obra hura bertan bera gelditu zitzaigun, ausardia ez-ezik, euskararen ezagupen fonetiko eta lexikal sendorik gabe hainbat eta hainbat hitz latino-erromanikoren aurrean larraspastada etimologiko nabariak kamitikora, egiptoerara, sumeriera, bereberrera, etabar, maiz, egiten zirelako. Beraz, ezdazilegi ziurtasun eta tinkotasun filologiko serioz ezaguna zaigun etimologia latino eta erromaniko aunitzen aintzinean erro kaukasiarrak (*Lafon* eta *K. Bouda* gisa), edo-eta bereberrak, kamitikoak, ipar-afrikakoak bilatzen ibiltzea (aipatzekoak hemen *Gabelentz*, *Lavory*, *Saint-Pierre*, *Gamillscheg*, eta beste hainbat). Etimologismo erratiko hori onartezina da, lehenik hurbilekoena, hots, latinetik eta mintzaira erromanikoen eraginetik (bereziki, gaskoina, aragoiera, frantzesia, gaztelania zaharra eta Nafarroa-ko hizkera erromanikoatik) datorriguna ongi ezagutzen ez bada.

Arrisku guztion jabe izanik, hemen komentatzen ari garen DICCIONARIO ETIMOLOGICO VASCO delakoak irizpide hauek jarraitu ditu etimologiak eskaintzerakoan:

a) Euskara beraren lexikoaren garapenetik (hots, eratorpenetik edo deribaziotik eta konposakeratik) datorren hitz-andanaren azterketa; euskarak beraldiko ahalbidea isladatzen du hitz berriak bere haritik sortzeko unean.

b) Latinarekin zerikusia duten hitzak, erlazio fonetikoak aztertuz, fenomeno aintzinakoenak eta geroztikoak, bereziki, belareen trataeran kontutan izanik; honetan, *Griera* eta *Castro Guisasa-oren* irizpideak, maiz, arbuizatzen dira, gehiegikotzat —fonetikaren galbaetik— epaituz.

c) Hitz erromanikoak edo-eta latinaren ondorengoak irizpide fonetikoaren arauera aztertuz, euskalki bakoitzaren eremu-geografikoaren irizpidetan mailebu gaskoinak, gaztelaniarrak, aragoiarrak, etabar ondo zehaztuz. Logikoki, iparraldeko L, BN, S euskalkiek gaskoina eta biamoerarekiko duten menpekotasun lexikala eskerga da, eta berdin, hegoaldean G, B, AN, R, S euskalkien makurrera gaztelaniarekiko, eta R. S delakoena, prezeski, aragoierarekiko.

d) Goiko irizpideak kontutan edukirik, hiztegia ez da ixten beste irtenbide hurrunagoe-tara, hots, kaukasikora, kamitikora, bereberrera, etabar, beti fonetika eta fonemen bilakaera kontutan izanik.

Dena den, azkeneko iturri hauek, maiz, erreseina bibliografikora mugatzen dira, ezen-eta aportaturiko erroen finkapen fonetiko eta sinkronikoa falta baita. Azken andanako etimologia aunitz, gainera, irudipentsua, estrafalariora eta labaintsua bilakatzen da, maiz.

Guretzat hiztegi berri honen azerturik handienetakoa azalduko irizpideetan oinarritzea izan da, gure baratzen etimologiaren esparruan emaniko nahaste-borrasteak eta ausardia gaitzak izan baitira. Beraz, etimologia askoren aurrean hiztegia aporte bibliografikoa ematera mugatzen da. Eta, kurioski, harriturik gelditzen da bat Europako hizkuntzalariek (alemanek, holandiarrek, italiarrek, frantsesak, gaztelauek) eta etxeko azterlariek zenbateko arretaz eta zabaldundez *de re etymologica euskerica* jardun duten ikusterakoan.

Euskal lexikoan elementu latino-erromanikoak eduki duen zerikusiaz guk orain zortzi bat urte argitaraturiko *Latina eta erromanikoaren eragina euskararen* tesi doktorealean nabarmen utzi genuen gure hiztegi osoaren %-eko ia 65/70-a jatorriz hurbilagoa zaigun latinaren eta beretik datozen mintzairaren harikoa dela. Konstatapen horrek ez gaitu destenoretu behar, eragin hori gabe, behar bada, gaur euskara —hizkuntza enbrionario gisa— tresnarik gabe aspaldi desagertua izanen baitzen. Gainera, euskarak bere fonetikaren galbae harrigarritik igaro ditu mailebuak, adibidez, lat. *cummulum gonburu/kopuru*, lat. *cochlearem goilare*, lat. *cistellam txistera* (gaskoinerazko *chiste-reren zehar*). Kasu hauetan erro kaukasiar eta kamitikoetara ihes joatea akritizismo filologiko gaitzean labaintzea da. Hori dela-eta, *Sainf Pierre*, *K Bouda*, *Löpelman* eta beste autore asko ildo arriskutsuetatik dabil, hurbileko erroak ezagutu gabe. Hainbat hipotesi artean benetako iherarkiarik ezartzen ez bada, alferrik da, halako etimologismo fantasmagorikoa eraikitzen da, gure deituren edo apellidos eskuliburu hainbatetan (*López Mendizabal* eta *Narbarte* autoreen idazkietan, adibidez) garaille dagoen etimologismo kolokatsu, azientifiko eta gorabeherazkoa. Mailebu latinoen eta erromanikoen hainbesteko eraginak ez gaitu beldurrarazi eta lotsatu behar, *aingeru*, *katea*, *garazia*, *barkatu*, *bazkatu*, *platera*, *kaiku*, *katilua*, etabar, gaur egun “euskal” hitzak bilakatu baitira, euskarak hitz horietan txertatu dituen ezaugarri fonetikoengatik. Komeni da sasi-lotsa hori gainditzea gure lexikoaren aberastasun eta garapenerako. Beraz, munduan ez da guztiz isolatua den mintzairarik, eta isolamenduak berekin eskasia eta elementaltasuna dakar (euskarak, oraindik, isladatzen duen elementaltasuna, gutxienez, gaztelanian hainbesteraino ematen ez dena).

DICCIONARIO ETIMOLOGICO VASCO honetan atzeman daitezkeen *akatsen* artean hauek aipatuko nituzke:

a) Iturri bibliografikoetan ezdira kontutan izaten *euskaraz* idatzirikoak, adibidez, *Euskara* aldizkarian etimologismoaren arloan emanikoak (*Juan San Martin-ek*, *Kintana-k*, etabarrek),

guk gerok aipaturiko liburuan (A eta B izkietan, bakarrik, “ehundaka” aportazio berri eman bai genituen, bereziki, *latina* eta *erromanikoaren* andanatik, beti zehaztapen fonetikoak sakonduz). Bibliografia hori kontutan edukitzekoa zen, *euskaraz* eginiko azterketak ere zientziaren bokazioa duelako.

b) Atzizki latin-erromanikoen esparruan *-ana*, *-aun*, *-ano*, *-ailu* gisakoak arin aztertzen dira, ala ez dira aztertzen; atzizkien tratamenduak bere garrantzia du, hitz-andana berriak sortzen direlako hizkuntzaren corpus-ean.

c) Konposatu batzuen interpretapen endogenoan edo intra-euskerikoan *Corominas-en* etimologia hainbat diskutagarria gertatzen da, hala-nola, *aikolo-maikolo*, *ardantza* hitzeko-antza amaieraren identifikazioan, eta *argizkorri*, *arrapal* eta beste hitz askori egotzitako osagaien analisisan. Guk eginberria dugu *ehun* bat horritako lana, akats horiek seinalatuz batzutan, eta hipotesi berriak eskainiz bestetan etimologia berri baten ildotik. Lan hori obra handi honen osagarria litzateke, anotaziozko “gehigarri” gisa.

Gure ustetan, *Tovar* eta *Agud* euskalarien lan berri honek euskaldun guztion abegi ona eta eskertza merezi du, dudarik gabe. Bertan hitz askoren azterketa etimologikoa eta aparato bibliografiko estimagarria bilakatzen da, ezen-eta aipaturiko bibliografia, maiz, helgaitza gertatzen baita, gaur hainbat eta hainbat aldizkari zientifiko eta atzerrikoetan barreiatua dagoelarik. Adibidez, *abarka*, *aita*, *ardo*, *abi*, *agor*, *andera*, *hazta*, *aska*, *asto* gisako terminoetan eskaintzen zaigun tratamendua harrigarria eta ez-ohizkoa da. Gainera, hiztegian hitz bereziaren al-daki *dialektal* gehienak ematen zaizkigu, gerora, fonetikoki aztergarri bihurtzen direnak.

A. *Tovar-ek* zenduak, eta lanaren biltzaile nagusien izan den *M. Agud* jaun azterlariak, har bezate euskaldunon eskerrik sakonena gure hizkuntzari lehiu berria zabaldu diotelako azterketa hain hedatuaz.

Luis M.” Mujika